

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Gelan egindako **errezeta liburuxka**rekin lotuta:

- ✓ Lan-unitatearen amaieran, errezeta liburuxka bat jasoko duzu. Nahi izanez gero, hartu ikaskide batek idatzitako errezeta eta **presta ezazu plater hori etxean**. Hurrengo egunean, azaldu ikaskideei nola atera zaizun, etxekoek gustura jan duten... Animatzen bazara, atera platerari **argazkiren bat** eta erakutsi ikaskideei.
- ✓ Ba al da ondo ateratzen zaizun errezeta bat? Tira, animatu eta, zure errezeta kutun hori aprobeztatuta, **graba ezazu** Maitane Seguroiak egin duenaren antzeko **tutorial bat**. Gogoratu ez duzula jarraian grabatu behar, **pausuak grabatuta eta plateraren nondik norakoak azalduta** nahikoa izango dela. Tutorial hori gelan bertan ikus dezakezue, telebista erabilia.

Telebistako sukaldaritza saioei lotuta:

- ✓ **Nahieran** aukera baliatuta, ikus ezazu **eitb.eus** orrialdean **Txoriene** saioko atalen bat. Hurrengo egunean, ikaskideei **kontatu** zer plater prestatu duten, zer osagai erabili dituzten, nola egin duten... Adibidez, gelan landuko dugunarekin oso lotuta dago errezeta zaharrak izenburuko atala: [Errezeta zaharrak](#).
- ✓ **Nahieran** aukera erabilia, ikus ezazu **eitb.eus** orrialdean **Tribuaren berbak** saioaren 3. denboraldiko atal hau: [On egin dagiola euskarari!](#) Euskararen eta gastronomiaren arteko loturaz hitz egiten du. Ikusi ondoren, kontatu ikaskideei **zer hitz berri ikasi dituzun** saioan.

Gastronomiaren inguruko webguneei lotuta:

- ✓ Egin bisita [orrialde honi](#). Maitane Seguroiak baditu beste errezeta batzuen tutorialak ere. Beste gai batzuei lotutako kontuak ere lantzen ditu. **Ikusi** bideo horietakoren bat, eta, hurrengo egunean, **kontatu eskolan** zer ikusi duzun eta zer iruditu zaizun.
- ✓ [Webgune honetan](#) **errezeta** pila bat dago, **artikulu** interesgarriak, zure errezetak bertara **igotzeko aukera... Irakur ezazu** artikuluren bat edo errezetaren bat, eta **konta iezaiezu** ikaskideei hurrengo egunean eskolan. Animatzen bazara, **igo ezazu bertara** zuk grabatutako errezetaren bat.